



Neurrira egindako industria-enbalajeak



EMBALAJES
ECHEBERRIA


50 Urtetik Gorako Ibilbidea Dugu, Industria-Enbalajeko Enpresa




Embalajes Echeberria S.L. n gure bezeroen beharrak asetzeko helburua dugu, eta, horretarako, haien beharretara egokitzen gara. 50 urtetik gorako ibilbidea dugu, eta horri esker liderrak gara merkatu nazionalan, baita nazioartekoaren zati batean ere.



Tn. Enbalaje-mota (Tonak)



Merkatuak




Kalitate-arau zorrotzenak dituzten




da, eta neurrira egindako irtenbideak ere ematen ditu



Gure sistemak guztiz automatizatuta daude, eta 300 milioi ontzi baino gehiago ekoizteko aukera ematen dute urtero. Enbalajearen fabrikazioaren eta entregaren ezaugarri nagusiak azkar erantzuteko gaitasuna eta entrega-epeen malgutasun handia dira.



ziurtagiriak



Gure bezeroak aholkatzen ditugu enbalatzeko prozesuak irauten duen bitartean, eta bakoitzaren beharrei egokitzuz diseinatzen dugu proiektua.




Aplikazioak:

- Automobilgintza (CKD, abiadura-kaxak, kolpe-leungailuak, frontalak, kableak, ordezko piezak, direkzio-sistemak, balaztarenak, esekidurarenak, motorrak...)
- Energia (panel fotovoltaikoak, armairu elektrikoak, osagaiak...)
- Argindarraren Sektorea (kableak, elektromedikuntzako ekipamenduak, zirkuituak, transformadoreak, sorgailuak...)
- Telekomunikazioak (kabineteak, telefono mugikorrek, oinarri-estazioak, transmisio-produktuak, UPS sistemak...)

ZURA

CL CONT-PERF Modeloa



CL CONT-PERF modeloa erdiko gorputz tolesgarri batek, estalki batek eta palet batek osatzen dute. Azken bi elementuak erdiko gorputzaren barruan sartzen dira, eta, hala, oso enbalaje hauskaitza eta moldagarria lortzen da.

Esportaziorako eta garraiorako zurezko enbalaje bereziak dira, taula kontraxapatuan eta altzairuan fabrikatuak. Pilatu egin daitezke, eta garraiatutako salgaiak babesteko diseinatu daude.



LG CONT-PERF Modeloa



Neurri estandarrek

1	580x380x380	5	780x580x580
2	780x380x380	6	980x580x580
3	780x580x380	7	1180x780x580
4	780x380x580	8	1180x780x780
		9	1180x980x780

LG CONT-PERF modeloa erdiko gorputz tolesgarri batek, estalki batek eta euskarridun oinarri batek osatzen dute. Mihi metalikoen bidez mihizatzen dira hiru piezak.

Ezin egokiagoak dira bereziki ondo eutsita joan behar duten salgaien irtenbideetarako, eta segurtasun-baldintza bereziak behar dituzten garraio berezietarako.



FL CONT-PERF Modeloa




FL CONT-PERF modeloa erdiko gorputz tolesgarri handi batek, estalki batek eta euskarridun oinarri batek osatzen dute.

Berrerrabiltzeko enbalaje ezin hobea da. Oso erraz muntatu eta desmuntatzen da, gorputza tolestuta estalkian eta oinarrian sar baitaiteke.



PLG CONT-PERF Modeloa



PLG CONT-PERF modeloa tamaina handiko salgaiak paketatzeko diseinatu dago. Mihi metalikoen bidez erraz mihizta daitezkeen sei piezak osatzen dute.

Modelo hauek ezin egokiagoak dira itsasoko produktuak garraiatzeko, itzultzeko eta logistika optimizatzen.



Aplikazioak:

- Material arinak eta pisu ertainekoak paketatzea.
- Babes gorena, bidalketa logistikoetarako eta mezularitzarako egokia.
- Garraio hoztua.
- Biltegitratze-tiraderak.
- Inka, ratioPal eta Euro paletekin bateragarriak.

Tradizionala



Kartoizko enbalajeak aukera bikaina dira produktuak biltegian gorde eta egoera ezin hobean mantentzeko. Salgai hauskorrak garraiatzeko ere gomendatzen dira, material erresistentez eta gogorrez eginda daude eta.

Oso katalogo zabala dugu, eta modelo pertsonalatuak eskaintzen ditugu, bezero bakoitzari egokituak.

Kartoi industrialeko enbalajeak, automobilgintzaren industrierako, Original Equipment Manufacturer (OEM) delakoko fabrikatzaile garrantzitsuenen espezifikazioekin.

Fabrikazio-teknologiarik berriena daukagu, eta horrek lagundu egiten digu eskariak denbora laburrean osatzen, erosle bakoitzaren beharrak asebetetzeko.

Box Paleta industria-garraiorako



Box Paletak kartoi izurtuko industria-enbalajeak dira, nazio barruan edo nazioartean salgai handiak garraiatzeko bereziki diseinatuak eta fabrikatuak.

Tamaina handiko industria-enbalajea, oso-osorik kartoi izurtuz egina, eta % 100 birziklagarria.

Neurrira egindako Box Paleten barnealdeak:

Box Palet guztien barnealdea egokitu daiteke, garraiatuko diren produktuen neurrira.

Egonkortasun handia dute, eta pilatzeko orduan segurtasuna. Tolestuta ematen dira, eta erraz muntatzen eta desmuntatzen dira.

Heavy-Duty



Salgaiak garraiatzeko kartoizko heavy-duty enbalajeak erresistenteak dira, eta kondiziorik latzenak jasan ditzakete. Logistika-katean integratuta daude, eta ez dira kaltegarriak ingurumenarentzat.

Heavy-duty enbalajeak kartoi izurtuz diseinatzen eta fabrikatzen dira neurrira eta lodiera

desberdinak (sinplea, bikoitza, hirukoitza eta laukoitza), eta pertsonalizatutako estaldura izan ditzateke, produktuaren beharren arabera.


Beti ere, enbalajearen eta garraibidearen tokia ahalik eta hoberen baliatzen saiatzen gara, ahalik eta pieza gehien garraiatzeko egoera onenean.

Aplikazioak:

- Automobilgintza (CKD, abiadura-kaxak, kolpe-leungailuak, frontalak, kableak, ordezko piezak, direkzio-sistemak, balaztarenak, esekidurarenak, motorrak...)

MISTOA

0709 Modeloa



Enbalaje-mota hau bereziki egokia da zabalera eta bolumen ertainetik handira bitarteko produktueterako, bereziki erresistentea baita, eta ezin hobeto finkatzen baita.

Kartoizko eta zurezko industria-enbalaje mistoak erabat pertsonaliza daitezke, produktu industrial oso luze, egonkor eta astunen garraioa eta logistika errazteko.

Ahalik eta babesik handiena ematea eta ahalik eta lekurik txikiena betetzea gogoan, 0709 modeloa garapen erakatuaren adibide da.

Arazorik gabe pilatu daitezkeenez gero, enbalaje hauek aukera ematen dute produktu-kantitate handiak garraiatzeko eta enbalajearen muntaketa-prozesuetan aurrezteko, logistika-kostuak gutxituta.



0501P Modeloa



Askoren ustez, 0501P enbalaje mistoa merkatuko enbalajerik praktikoena da, eta hoberen diseinatuakoa.

Kartoiz eta zurez egindako kutxa industrial misto hauek guztiz birziklagarriak dira; kanal bikoitzeko edo hirukoitzeko kartoizkoak izan daitezke, eta kalitate desberdinetakoak.

Enbalaje misto honen abantailatako bat garraioan

eta biltegitratzean aurrezten den tokia da. Ez da tresna berezirik behar enbalajea muntatzeko, eta edozein langilek egin dezake, inolako zailtasunik gabe.

Embalajes Echeberriak zerbitzu guztiz pertsonalizatua eskaintzen du, eta itxiturak, bandak, gurpilak eta bestelako osagarriak gehi ditzake, bezeroak hala behar badu.

Aplicazioak:

- Sehaska bereziak
- Ertz-babesak
- Botiletarako enbalajea
- Kutxak
- Gangatxoak
- Xafiak

Neurrira egindako garapenak



Enbalajeetarako elementuen diseinua eta fabrikazioa, CAD/CAM mekanizazioaren bidez.

Enbalajerako zurezko konponbide mekanizatuak neurrira egindako garapenak dira, eta produktu-

mota ugari babesteko eta mantentzeko erabili ohi dira, haien bizi-prozesuan.

Enbalajea automatizatzearen helburua enbalajeak produktuarekin zehazki bat egitea da, baita neurrira egindako irtenbideak eskaintzea ere.

Enbalaje mekanizatuak produktu-mota ugari babesteko eta mantentzeko erabiltzen dira, haien bizi-prozesuan.

Enbalaje-mota honek teknologia-maila altua du. Hala, babes gehigarria ematen du, beste motetako enbalajeek eman ezin dezaketena.

Embalajes Echeberriak zerbitzu profesional eta serioa ematen du, eta haren espezialitatea

MEKANIZATUA



enbalajearen arloko irtenbide mekanizatuak fabrikatzea da, goi-mailako kalitate-estandarrengatik nabarmentzen diren zenbakizko kontrolako makinetan.

OSAGARRIAK

Babesgarriak



Enbalatutako produktuak haiek babestu eta kolpeak xurgatuko dituen material batez inguratu behar badira –garraiatzean hautsa edo zikinkeria hartzea saihestez gain–, burbuiladun plastikozko edo kartoizko biribilkiak eta bobinak erabiltzen dira.

Produktuaren eta kutxaren arteko airea betetzeko produktuen bidez, kolpeak saihesten dira. Embalajes Echeberriari, beste produktu batzuen artean, betegarri ekologikoa, aire konprimatuko Airmove poltsak eta, produktu txikiak, aireko estalki babesgarriak erabiltzen ditugu.

Gure babesgarriek % 100eko babesa eta betegarri EkoArduratsua dute

Babesgarri-motak:

- Burbuiladun plastikozko biribilkiak, zabalera desberdinetakoak
- Burbuiladun plastikozko biribilkiak + kraft papera
- Burbuiladun plastikozko biribilkiak + Foama
- Foameko biribilkiak, lodiera desberdinetakoak
- Kartoi izurtuko biribilkiak, zabalera desberdinetakoak
- Polipropilenoazko eta PVCzko zigitua
- Eskuzko zein makina automatikorako film luzagarriko biribilkiak
- Paper bikeztatua, kraft papereko biribilkiak, zeta-paperak eta Manilako paperak

Zurezko uztaiak



Embalajes Echeberriaren enbalajeetarako zurezko uztaiak nazioartean gehien eskatzen den irtenbide modularretako bat dira. Leku txikia betetzen dute, beren altzairu galvanizatuko 4 edo 6 bandei esker tolesgarriak baitira.

Zurezko uztaiak bat datoz neurri estandarren araudiarekin, oso malguak dira, eta enbalaje moderno baten abantaila guztiak dituzte. Beraien abantaila bat da bai uztaiak bai estalkiak erraz ordezkatu daitezkeela kalteren bat jasanez gero; Embalajes Echeberriari badugu salmenta-osteko sistema bat, ordezkapena egiteko.

Erresistentzia eta diseinu ergonomikoa dira haien beste ezaugarri bat.

Neurri estandarrek

1	800x600x200
2	1200x800x200
3	1200x1000x200

Araudi fitosanitariora egokituta daude, mundu osoan esportatzeko.

Heldulekuak eta indargarriak



Heldulekuak eta indargarriek garraioa errazten dute, eta askoz seguruagoa, fidagarriagoa eta erosoagoa izatea eragiten dute. Gainera, posizio egokian mantentzen dute produktua. Embalajes

Echeberriari indargarriak eta indargarriak gabeko heldulekuak ditugu, aurretik trokelatu den edozein enbalajetan egokitzeko modukoak. Hainbat kirten ere baditugu, zumitza pasa dadin.

Babes-profilak eta ertz-babesak

Embalajes Echeberriari arreta handiz jokatzen dugu zure produktuentzako babes gehigarria ziurtatzeko.

Hala, balizko marruskadurak eta kolpeak saihesten dira zure produktuak garraiatzean eta banatzean..

Teknikoak



Enbalaje teknikoak dira espezifikazio jakinak dituzten edo bereziki apurkorrak diren produktuak garraiatzeko eta manipulatzeko diseinatutakoak. Horien artean egon daitezke osasun-materiala eta medikuntza-produktuak salbamendurako ekipamenduak, telekomunikazioetako enbalaje bereziak, ikus-entzunezko ekipamenduak, etab.

Enbalaje hauek neurrira egiten dira, gure instalazioetan. Ase behar izaten dituzten premia bereziak direla eta, barnealdea aparrez edo plastiko bigunez egiten da batzuetan. Horiek piezei egokitzen zaizkie, eta enbalajearen barruan mugitzea eragozten diete.

Salgai arriskutsuak



Enbalaje hauek bereziki diseinatuta daude segurtasuna bermatzeko oso material arriskutsuak garraiatzean, hala nola gas toxikoak, korrosiboak eta likido sukoiak.

Ezinbestekoa da enbalaje homologatuak izatea eta behar bezala etiketatzea, araudiei jarraituz.

Kartoizko bereziak



Kartoizko enbalaje bereziak enbalatu beharreko piezaren neurrira eginda daude, hau da, egin beharreko bidalketaren beharren arabera espezifikazioak betez.

Enbalaje hauen gune kritikoak sendotu egiten dira, babes berezia izan dezaten, eta haiei esker piezaren segurtasuna berma daiteke, enbalatu

beharreko produktuak garraiatzean eta zamalanak egitean.

Kartoizko enbalaje bereziak eskari handiko irtenbidea dira –kartoia arina eta kostu txikikoa baita–, eta ezin hobeak dira zenbait material garraiatzeko eta manipulatzeko, hala nola automobilgintzako piezak eta abar.

Neurrira egindako zuraren bereziak



Neurrira egindako zurezko enbalajeak formatu bereziko piezetarako erabiltzen dira.

Nazioarteko merkataritzan erabiltzekoak izanez gero, denek dute NIMF 15 tratamendu fitosanitarioa, neurri fitosanitarioen nazioarteko araudi berriari jarraituz. Hortaz, zigilu bat dute

kutxek, tratamendu hori egin dela egiaztatzeko.

Zurezko enbalaje bereziak Gasteizen dugun fabrian neurrira egiten dira, eta segurtasuna ematen diote zamari, garraiatzen eta manipulaten den bitartean.

Plastikozko bereziak





Gure plastikozko edukiontziek aukera ematen dute beren barnealdea moldatu eta material-mota ugari bata bestearekin gordetzeko. Edukiontzi birziklagarri hauek garraiatu beharreko materiala kontuan hartuta egiten dira.

Plastikozko industria-enbalajeak tolesgarriak dira, eta haien barnealdea egokitu egin daiteke, zure produktuaren beharren arabera (apar indargetzaileak, gelaxka-kutxa malguak, plastikozko kokagailuak...)

Barnealdea egokitzeko:

- Euste-gelaxka malguak
- Euste-gelaxka zurrinak
- Apar-dun barnealdeak
- Barnealde eroaleak



EMBALAJES ECHEBERRIA

Portal de Zurbano, 19.
01013 Vitoria-Gasteiz (Spain)

Tel.: +34 945 26 04 44
Faz: +34 945 26 05 55

info@embalajes-echeberria.com
www.embalajes-echeberria.com

